NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ika

ETXETIK PLAZARA

ESKUAK BETE

SARIA:
ETXALARKO HERRIKO OSTATUAN
bi lagunentzako otordua

2021eko IRAILA

174. ALEA

IZENAK IZAN

AUZOLANA

Auzolana zer den inork baino hobeki daki ale honetako gure elkarrizketatuak. **Jasone Mitxeltorena** etxalartarra dugu, hain zuzen ere, protagonista; Auzolanaren kultura izeneko saiakera-liburuaren egilea. Bertan, azterketa historiko eta hausnarketaren bidez, Euskal Herrian auzolana zer izan den eta zer den azaltzen digu. Hortaz, gaiari buruz galdetzeko aprobetxatu dugu Etxetik Plazara aldizkarian. Hori bai, elkarrizketaz gozatu aitzinetik, lantxo bat egin beharko duzu: ikusiko duzu galderak kendu eta hemen azpian paratu ditugula. Orain, erantzunak eta galderak erlazionatu beharko dituzu zuk. Ea ongi egiten duzun!

GALDERAK:

a) Emandako azalpen horretaz haratago, zer da auzolana zuretako?
b) Euskal Herriaz gain, ba al dago auzolanean antolatzen den herririk?
c) Labur-labur, auzolanaren iragana eta orainaren arteko aldea aipatuko al duzu?
d) Zure ustez, gure eskualdean, zeintzuk izan dira edo dira auzolanik garrantzitsuenak?
e) Nola azalduko zenioke auzolana zer den ideiarik ere ez duen norbaiti?
f) Auzolanak etorkizuna bermaturik al du? Zer indartu beharko litzateke?

ERANTZUNAK:

1-.....
Auzo edo herri batean guziek erabiltzen dituzten bide edo bertzelako azpiegiturak elkarlanean zaintzea. Historikoki indarrean izan den antolatze-modua da. Eginbeharreko lanak herriko ordenantzen bidez arautuak izan daitezke edo taldean adostu eta antolatuak.

2-.....
Taldean aritzea, hori da niretzat garrantzitsuena. Horrek bertze gisa ezin dena egitea ahalbidetzen du, eta horrekin batean, hori bezain garrantzitsua dena: taldean aritzeak ematen dituen asebetetzea eta gozamena.

3-.....
Gure herrietan Batzarra erakundea indarrean izan den mende luzeetan barrena, herriari dagozkion alde guziak herritarrek talde gisa erabaki, antolatu eta gozatzeko kultura bizitu da. Orain dela 150 bat urte, Udalbatzak eratu eta ordura arte herritarren eskumenak zirenak ordezkarien eskuetara iraganez geroztik, erabakiguneak urrunduz joan dira -Iruñea, Madril, Europa- eta horiengandiko harremana norbanako gisa ezarri. Herritarrek euren burua talde gisa ulertu eta horren arabera antolatzeko ahalmena galdu izana da ondorio nabarmenena. Hori hala izanik, lehenago berez sortzen zen auzolana, eta, gaur egun, ahalegin berezia egin behar izaten da eusteko edo abian jartzeko. Badira, noski, egiten denaren adibide aunitz, erabat ez baita galdu, baina garai batean izandakoaren aldean aunitzez ere murritzago.

IZENAK IZAN

4-.....

Gure egunotan, nork berearen kultura muturreraino ailegatzen ari da, dagoeneko muga jo ez badu. Gizarteko izakiak gara, elkarren beharra dugu eta ez lanerako bakarrik, lagunak beharrezko ditugu osasuntsu izan nahi badugu. Gaur den egunean, iduri du uhinen bidez loturik izatea aski dela -hala saltzen digute iragarkiek-, baina ilusioa bertzerik ez da. Beraz, eta umorez erranen dut, niretzat galdera ez da auzolanak etorkizuna bermatua ote duen, guk modu honetan segituz gero hala ote dugun baizik (kar, kar, kar). Bakoitz-beretasuna muturreraino bizitzean, segur aski zerbait ere ikasi izanen dugu, baina, nire ustez, berriz ere taldean antolatzeko moduak asmatzea dagokigu. Horixe da indartzea beharrezko ikusten dudana. Horretarako baliagarri zaigu gure aitzinekoen eredua, garai berrietara moldatua. Joxean Artzeren olerkiak dioen moduan: «Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura, betiko iturri zaharretik».

5-.....

Ai, ai, ai, aipatu gabe utziko ditudanengatik haserretuko zaizkit! Ba, aunitz pentsatu gabe, honakoak gogoratzen zaizkit: uholde-kalteen aitzinean egin izan direnak -azkena, Baztanen gertatua-, eta Amaiurren karriken zola-berritzeko egindakoa -segur aski herri gehiagotan ere egin dena-. Etxe bat erretzean gertatzen dena ere aski garrantzitsua iduritzen zait, bai materialki, bai familiari ematen dion animoagatik (joan den hilabetean Berruetan izan da). Kultura arloan erranen nuke ekimen gehienak hala egiten direla, eta horien artean nabarmendu nahi ditut, euren dimentsioagatik, Baztandarren Biltzarra eta Etxalarren egindako Pastorala. Leitzan, bertako oihanaren alde landaketak auzolanean egitea ere eredutzat jarriko nuke, eta azkenik, txalo handi bat eginen diet aitzinekoengandik ikasia etenik gabe segitzen dutenei: auzoetako bideak eta mendietako bidexkak edo iturriak zaintzen dituzten baserritar horiei guziei; batzuek zaindurik, denek gozatzen ditugunak. Ia horien segida hartzeko gai garen!

6-.....

Bai, badira, mundu osoan. Pirinioetako gainerako herrietan badira auzolanaren baliokideak, eta bai Asturies, Leon eta Galizian ere (andecha, hacendera...). Irlandan ere ba omen da gisako sistemaren bat (coor), eta, nabarmen, Hego-Amerikan (minka, mingaco...) eta Afrikan (harambe, Kenyan...). Batere ikertu gabe jakin ahal izan ditugu horiek, eta, beraz, pentsatzekoa da aunitzez ere gehiago badela. Gure ustez, «jatorrizko herrien» sistema dela adierazten digu horrek, hau da, herrien berezko antolatzeko modua dela, kanpotik ezarritako sistemen aitzinekoa eta horiek agertzean ere irauten duena.

LAN eta LAN

BERRIDAZKETAK

Jasonek esaldi aski mamitsuak bota dizkigu elkarrizketan; lasai hartu eta hausnartu beharreko ideiak. Ariketa honetan, esaldi horietako batzuk hartu ditugu, horien inguruan pentsa dezazun, baina, kasu honetan, nola berridatziko dituzun asmatzeko. Ea zer moduz, batzuk zail samarrak dira!

1. Eskumenak ordezkarien eskuetara iraganez geroztik, erabakiguneak urrunduz joan dira.

.....-enetik, ...

2. Eginbeharreko lanak herriko ordenantzen bidez arautuak izan daitezke.

.....bitartez.....

3. Gaur egun, ahalegin berezia egin behar izaten da eusteko edo abian jartzeko.

.....-tzekotan, ...

4. Gaur den egunean, iduri du uhinen bidez loturik izatea aski dela.

....., antza, ...

5. Hala saltzen digute iragarkiek, baina ilusioa bertzerik ez da.

.....baizik .....

6. Nire ustez, berriz ere taldean antolatzeko moduak asmatzea dagokigu.

.....-lakoan nago.

7. Amaiurren karriken zola-berritzeko egindakoa.

.....-ikoa.

8. Gure ustez, «jatorrizko herrien» sistema dela adierazten digu horrek.

.....aburuz,.....

BITXILOREAK

EUSKARA, AUZOLANAREN FRUITU

Jasoneren eskutik ikasi ahal izan dugu auzotar, herritar **zein (1)** bizikideen artean lankidetzan **zereginak** egiteko sistema dela auzolana; gurean, landa eremuetan, hagitz **sustraitua (2)** dagoen **jarduna (3)**, alegia. Testu honetan, euskararen mundura zabalduko dugu kontzeptu hori, eta lerro hauek sinonimo batzuk lantzeko aprobetxatuko ditugu. Ea beheitiko hitzok testuan markatutakoekin parekatzen ahal dituzun!

a) garaitu	**c) eta, nahiz**	**e) aktibitatea, jarduera**	**g) errotua**	**i) bilakatzen**
b) publikatzen	**d) jasaten**	**f) zabaltzeko**	**h) pilaketa**	**j) oinarria**

Hasiera batean, herriko eta basoetako toki komunetan lanak burutzeko erabili ohi zen. Gaur egun, lankidetzaren sinonimotzat hartzen da. Elkarlana, lankidetza; auzolanaren bidez, hainbat ekimen hamaika arlotan sortu, bultzatu eta bizirik iraunarazi dira. Zenbait kasutan, administrazioen utzikeria dela-eta edo betebeharrak burutzen ez dituztenean, herritarrok behetik goitiko indar-**metaketa (4)** eginez (baita diru-metaketa ere), ilusioz beterik, hainbat amets egia **bihurtzen (5)** dugu.

Energian, ingurumen arloan, nekazaritzan, kulturan, elkartasun ekimenean… hamaika adibide azpimarratzen ahalko litzateke. Etxetik Plazara aletxo honetan, euskalgintzan auzolanez burutu eta burutzen diren hainbat proiektu gogora ekarri nahi ditugu. Euskal Herriko komunikabide askoren sorreran auzolanari esker bultzada eman zitzaien: gurean, Ttipi Ttapa aldizkaria eta Xorroxin irratia zerrendatzen ahal ditugu. Zorionez, gaur egun oraindik, auzolanak garrantzi handia du. Euskal Herriko lehendabiziko euskarazko egunkaria ere auzolan erraldoi bati esker gauzatu zen, herriz herri joanda, kamisetak salduz, jaialdiak antolatuz…

Ikastola eta eskola publikoen aldeko jai txiki eta nagusien antolaketetan ere auzolan ederrak ditugu: Ibilaldia, Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz, Kilometroak, Sortzen edo Eskola txikien bestak…

Euskalgintzarekin jarraituz, hainbat liburu- eta disko-azokaren ekimenak aipatu behar dira. Durangoko azokaren hasmentako urteetan, auzolanari esker, oraingo azokaren **zimendua (6)** paratu zela erran dezakegu. Ziburuko liburu azoka ere, berriki sortutakoa, aipatu behar da.

Errigora eta Iparraldean dauden antzeko ekimenek ere beren tokia izanen lukete euskalgintzako auzolanean. Gure lurrak emandako uzta euskara **hedatzeko (7)** balio izan du. Elkarlan horiekin, euskararen zatiketaren mugak eta zailtasun ekonomikoak **gainditu (8)** eta arintzen laguntzen dute herritarrek.

Euskalgintzaren lankidetzaren zerrenda bukaezina suertatuko litzateke. Euskaraldiari ere aipamena egin behar diogu. Milaka belarriprest eta ahobizik bihotzean txapa bat eramanda, hamaika egunetan, hamaika egoeratan eta milaka herritan magia sorrarazteko ahalmena erakusten dugu. Eta zerrenda luze honetan, Korrikari aipu berezia egin beharko genioke. Bi urtetik behin Euskal Herria zeharkatzen duen lasterketa, indar-metaketa, ilusioaren besta bilakatzen da; ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, eskuz esku, lekukoa elkarri pasatuz, euskararen iragana, oraina eta etorkizuna auzolan bihurtuta.

Aunitzek euskalgintzako auzolanari beldurra diote, horregatik **nozitzen (9)** dugu maiz euskararen zapalkuntza. Baina, tira, ttipi-ttapa, ttipi-ttapa egunkariak berriro **argitaratzen (10)** ditugu, irratiak ez dira mutu gelditzen, euskaltegiak eta euskarazko ikastetxeak inoiz baino beteago ditugu… Euskaldunon indarra gure auzolanean datza; bihur dezagun euskararen etorkizuna gure auzolan.

BOTA BERTSOA!!

Ekhiñe Zapiain bertsolariari eskatu dizkiogu bertso batzuk, eta euskara eta auzolana elkartzeko galdegin diogu. Honako bertso-sorta dotorea oparitu digu beratar gazteak. Gai izanen al zara hemen azpiko errimak beren tokian paratzeko?

ERNE, SARIRAKO!

a) bizi	d) gu	g) landu	j) hasi
b) itsatsi	e) lehenbizi	h) irabazi	k) bakandu
c) harribitxi	f) adierazi	i) berandu	l) banandu

Mingainarentzat hitza
litekeenez gutizi
solasa ta lanari
nola ateak itxi?
Ahotan darabilguna
horren da ___1___
erabili behar dugu
ikasiz ___2___
ze euskaraz ari arren
ta zaintzera iritsi…
Hizkuntza auzolanik gabe
ezin daiteke ___3___

Norbera ta taldea
ezin dira ___4___
ezta ere norbera
bertzeengandik ___5___
hizkuntza ikasle egarriz
omen dago ta han ___6___!
Posible da azkar, lasai
edo poliki ___7___
euskarak maiz ondoan
arriskua izan du
beraz ikasten hasteko
inoiz ez da ___8___!

Behingoz beldurrak kendu
eta mintzatzen ___9___
lotsarik gabe euskara
mingaineari ___10___
denborak ez al du jada
ongi ___11___?
Elkarlanak irautea
duela ___12___
egin beharra dago
nahi baldin bada hazi
niretik erakutsi ta
bertzeengandik ikasi.

Doinua: Nehoiz ez da sentitzen

ERANTZUNAK

IZENAK IZAN (2-3. or.): 1- e; 2- a; 3- c; 4-f; 5- d; 6- b

LAN eta LAN (4. or.):
1. Eskumenak ordezkarien eskuetara iragan zirenetik, erabakiguneak urrunduz joan dira.; 2. Eginbeharreko lanak herriko ordenantzen bitartez arautuak izan daitezke.; 3. Gaur egun, eusteko edo abian jartzekotan, ahalegin berezia egin behar izaten da.; 4. Gaur den egunean, antza, uhinen bidez loturik izatea aski da.; 5. Hala saltzen digute iragarkiek, baina ilusioa baizik ez da.; 6. Berriz ere taldean antolatzeko moduak asmatzea dagokigulakoan nago; 7. Amaiurren karriken zola-berritzeko eginikoa.; 8. Gure aburuz, «jatorrizko herrien» sistema dela adierazten digu horrek.

BITXILOREAK (5. or.): 1- c; 2- g; 3- g; 4- h; 5- i; 6- j; 7- f; 8- a; 9- d; 10- b

173. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):
1- c; 2- g; 3- g 4- k; 5- l 6- m; 7- o; 8- b; 9- f; 10- e; 11- p; 12- n; 13- h; 14- i; 15- j; 16- d

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, 6. orrialdeko erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

174. aleko SARIA:

Etxalarko HERRIKO OSTATUAN bi lagunentzako otordua

173. aleko irabazlea:

Barbara Lucambio Gonzalez
Arantzakoa

ETXETIK PLAZARA liburua, DEBALDE!!
Eska ezazu, Bortziriak edo Malerrekako IKA euskaltegietan

http://etxetikplazara.ivoox.com

OHARRA: erantzunak **urriaren 1a baino lehen** bidal itzazu.

SARIRAKO ARIKETA

BOTA BERTSOA!! (6. or.):

1 - _____	5 - _____	9 - _____
2 - _____	6 - _____	10 - _____
3 - _____	7 - _____	11 - _____
4 - _____	8 - _____	12 - _____

EP 174 (2021/09)

ika
euskara errazago egiten

EUSKARAren KILIKA!!

Aldizkari honen egileak:

Bortziriak eta Malerrekako IKA Euskaltegiak

Marrazkiak:

Joseba Larratxe

Diseinua eta maketazioa:

Raul Garcia Etxeberria
Mathilde Brugiere-Garde

Laguntzaileak:

Nafarroako Mendialdeko EUSKARA MANKOMUNITATEAK

Zatoz EUSKARAREN kilikara!

Zeure herrian, urritik ekainera, astean 4 edo 6 ordu

MAILA GUZTIAK A1etik C1-EGAra, baita ON LINE ere

%100 diruz lagunduta!!

MATRIKULA ZAITEZ irailaren 30a baino lehen!!

IKAbortziriak, 948 637 796, bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus
IKAmalerreka, 948 451 555, malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behea, 31740 Donezteb.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

ika